



Patxi Zubizarreta - Elena Odriozola

6. Iratiren estutxea



... (Lehenengo orritik dator)



—Estutxea lapurtu didate!!! —oihukatu zuen Iratik, eta buru guztiak (begiak arranpalo) harengana jiratu zirelarik, gauza bera errepikatu zuen: Estutxea lapurtu didate!!!

—Ziur al zaude? —galdegin zioten kasik aldi berean Usoak eta irakasleak.

—Bai —erantzun zuen Iratik, tinkota-

sunez. Goizean bizkar zorroan ekarri dut eta gero mahai gainean eduki dut... —Oihenart irakasleak Usoari begiratu zion, eta honek buruaz baiezkota egin zuelarik, Iratik amaitu egin zuen: Baina orain ez dago, ikusi, norbaitek lapurtu dit...

Ordu arte adeitsu agertutako irakasleak, haserre baino haserreago, berde hitz egin zien: esan zien hura ez zela ikasturtea hasteko modua, esan zien estutxe hura kosta ahala kosta aurkitu behar zutela eta, apur batean pentsatzen egon ostean, esan zien:

—Klasea amaitutakoan, atsedenean, denok batera jaitsiko gara patiora. Nik zerrenda eramango dut eta, orden alfabetikoan, denak, Irati izan ezik noski, ikasgelara igoko zarete, hartara lapurrak ezkutuka estutxea itzultzeko aukera izan dezan. Neurri gogoragoak hartu beharko ditugu bestela. Eta orain, kopia itzazue hiruhilabete honetan irakurri behar dituzuen hiru liburuen izenburuak.

Ikasleak kexuka hastearekin batera («Lehen bi esan duzu!», «Hori gehiegi da!», «Hirugarrena oso lodia da!»), Usoak eskutik heldu zion Iratiri.

—Axut (GHP: mesprezio, destaina, pikutara) lapurra! Utikan lapurra! *Vade retro* (GHP: zerbait errefusatu, ukatu, kontra egin) lapurra!

—esan zion Iratik bere onetik aterata—. Gorroto dut *kartapazioa* (GHP: estutxea) lapurtu didana...

Alabaina, atsedena amaitutakoan, ikasleak banan-banan igo ostean, denak berriro igo zirenean, estutxea ez zen ageri ez Iratiren mahaian ez haren bizkar zorroan.

—Hau ez da horrela geratuko. Orain-txe bertan noa zuzendariarekin hitz egi-tera —esan zion Oihenartek gizarteko andereño Mireia sartu zenean—. Aukera bat eman dizuet, baina orain, zuen erruz, neurri gogoragoak hartu beharko ditugu.

Goiz hartako klaseak amaitu zirelarik, Usoak etxeraino lagundu nahi izan zion Iratiri.

—Ferafutro —esan zion bidea arinago egitearren.

—Barkatu, Usoa, baina ez dut jostatzeko batere gogorik. Bakarrik egon nahi dut. Gauza asko ditut pentsatzeko. Bihar egongo gara —Eta halaxe, aurea hartu zion Usoak une hartan egin nahi zuen galderari («Gero egongo al gara?»), eta halaxe, bakar-bakarrik abiatu zen bere etxerantza.

Guztiarekin, ikasturte berriko lehen eguna are bereziagoa izan zen, zeren, iluntze aldean, Bixintxok horrela deitu baitzion arrebari:

—Usoaaa! Manex da!

Usoa larritu egin zen eta, telefonoa ahora eraman arren, apur batean isilean egon zen (inondik ere ezin zuen gogotik kendu Manexek, kanpamenduaren amaieran, zuzendu zion gutuna; are gehiago, gauez, izarapean, kanpamendua gogora ekartzen zion esku argiaren laguntzaz irakurtzea gustatzen zitzaion...). Baina noizbait ere «Bai, esan?» kasik ahopeka xuxurlatu zuelarik, Manexek ohi ez bezalako albisteak eman zizkion.

—Oso gauza bitxia gertatu da, Usoa. Arratsaldean Iratik deitu dit. Esan dit zuek biak aurreko eguneko kafetegian agertuko zinetela kuxtaz hitz egiteko, baina bera bakarrik etorri da. Esan dit zu ezin zinetela etorri, baina erabakia zenutela zuen gisara kutxaren balioa aztertzea eta berak eramango zuela kutxa, seguruenik askoz ere diru gehiago lortuko zenutelakoan. Ez dakit: oso hotz egon da, oso arraro. Zuk ba al dakizu besterik?

Usoak beste isilune bat egin zuen, aurrekoa baino luzeagoa (inondik ere ezin zuen sinetsi Iratik ezkutuka eta maltzurkeriaz egina zutena; orduan ulertu zuen, bestalde, Iratik zergatik agurtu zuen hurrengo eguna arte).

—Usoa, hor al zaude? Ongi iruditzen zait zuek kutxaren balioa zuen erara aztertzea, baina, esadazu, zu jakinaren gainean al zeunden? Ez dakit, irudipena dut...

—Bai..., jakinaren gainean nengoen, baina ezin izan naiz joan —atera zitzaion Usoari, ahots firfira batean—. Eta zerbait jakiten dugunean, deituko dizut. Egon lasai.

—Ederki, zure deiaren zain geratzen naiz orduan... —amaitu zuen Manexek—. Agur eta zorte on.

Telefonoa eskegitakoan, Usoa zalantzan egon zen, Iratiri deitu, ez deitu. Baina berandu zen eta, Iratiren antzera, gauza asko zituen pentsatzeko, hain zuzen ere Iratiri buruz...

